



**BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLAREN**

**MEMORIA**

**2024-2025 IKASTURTEA**



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN EBALUAZIOA .....	3
2.1. URTEKO PLANEAN PROPOSATUTAKO HELBURUEN LORPEN MAILA.....	3
2.2. IKASLERIAREN IRAKASKUNTZA-PROZESUEN EBALUAZIOA.....	8
2.2.1. Musika eta Dantza hezkuntza.....	8
2.2.2. Ongizatera bideratutako hezkuntza eskaintzaren ebaluazioa .....	8
2.2.3. Aniztasun planaren ebaluazioa .....	9
3. ESKOLAKO KOMUNIKAZIO PLANAREN EBALUAZIOA .....	9
4. IRAKASKUNTZA JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA .....	10



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 1. SARRERA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren 2024-25 ikasturteko Urteko Memoria honek, besteak beste, eskolaren funtzionamendua eta jarduera nagusiak laburbiltzen ditu, eta, hala dagokionean, hobetzeko proposamenak jasotzen ditu.

2024-25 ikasturteko ibilbidea markatu duten alderdi nabarmenenak aipatu beharko bagenu, hauek lirateke:

- 64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzkoa.
- Eskolako zuzendari berria hautatzeko prozesua.
- Eskolaren izendapen berria.
- Eskolaren klimatizazioa.

64/2024 Dekretua ezartzeak Eskolako Hezkuntza Proiektua 2025eko abenduaren 31 baino lehen egokitzea ekarri zuen, eta hala egin da. Eskolako Hezkuntza Proiektua, besteak beste, eskolaren nortasun-printzipioak, helburuak, Curriculum Proiektua eta Eskolaren Antolaketa eta Jarduera Araudia jasotzen dituena, aipatutako Dekretuan ezarritako epearen barruan egokitu zen, eta Zuzendaritza Batzordeak 2025eko otsailaren 27an egindako bilkuran onartu zuen.

Azpimarratu nahi dugu, halaber, Eskolaren Hezkuntza Proiektuan lehen aldiz txertatu direla Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta Plana eta sexu-abusuen aurrean jarduteko protokoloa.

Bestalde, ikasturte honetan Eskolako zuzendari berria hautatzeko prozesua burutu da, Mari Jose Arregik erretiroa hartu baitu, Eskolako zuzendari kargua 40 urtez bete ondoren. Carlos Muñozek, zuzendari kargurako hautatuak, 2025-26 ikasturtean ekingo dio bere ibilbideari.

"Bizkargi Musika eta Dantza Eskola" izena ofizialtzeko, Eskolako zuzendariak, lehen aipatutako Dekretuaren 2. artikularekin bat etorriz, eskaera Hezkuntza Sailera bideratu zuen eta Batzar Nagusiak, bere aldetik, Elkartearen Erregistroan Eskolaren Estatutuen izenari buruzko 1. artikulua aldatzeko eskatu zuen.

Bi erakundeek ontzat eman dute Eskolak egindako eskaera. Hezkuntza Sailak bidali du dagoeneko onarpen-ebazpena, eta Elkarteen Erregistrotik ere helarazi du aldatutako estatutuen dokumentua.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu Eskolaren klimatizazioaren arazoa pixkana-pixkana konpontzen ari dela. Zuzendaritza batzordeak eskaera bat aurkeztu zion Udalari arazo honi aurre egiteko eta Udalak partida ekonomiko bat esleitu zuen Eskolan egin beharreko obraren kostua finantzatzeko. Obra hori uztailean egin zen, eta 02, 03, 04, 05 eta 06 gelak klimatizatu ziren. Dena den, oraindik hainbat gela klimatizatu gabe daude; zehazki, 07, 08, 09, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15 gelak.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

## 2. HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN EBALUAZIOA

### 2.1. URTEKO PLANEAN PROPOSATUTAKO HELBURUEN LORPEN MAILA

1. HELBURUA		Eskolaren Hezkuntza Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Dantza Eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretura egokitzea.							
ITURRIA		Musika eta Dantza Eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua.							
jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena	
			adierazlea	data		bai	ez		
Hezkuntza Proiektuko dokumentu guztiak berrikusi eta eguneratu	Ikasturtean zehar	Zuzendaria Irakasleak Zuzendaritza Batzordea	Hezkuntza proiektu osoa berrikusi eta eguneratu da	Ekainean	Zuzendaritza Batzordeak Hezkuntza Proiektua onartu du Dekretuak ezarritako epearen (2025eko abenduaren 31rako) barruan	X		Ez dago	
Bizikidetza eta Hezkidetza Plana eratu	Ikasturtean zehar	Zuzendaria	Bizikidetza eta Hezkidetza Plana idatzi da	Ekainean		X		Ez dago	
Sexu abusuen aurrean jarduteko Protokoloa eratu	Ikasturtean zehar	Zuzendaria	Sexu abusuen aurrean jarduteko protokoloa idatzi da	Ekainean		X		Ez dago	
Hezkuntza Proiektua Eskolaren webgunean argitaratu	Ekainean	Zuzendaria	Hezkuntza Proiektuaren dokumentu estrategikoak webgunean argitaratu dira	Ekainean	Hezkuntza Proiektua Eskolaren webgunean ikusgai dago	X		Ez dago	



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

<b>2. HELBURUA</b>	<b>Eskolako zuzendari berria hautatzea.</b>							
ITURRIA	Eskolako Antolaketa eta Jarduera Araudiaren 24.artikulua.							
jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Zuzendari berria aukeratzeko prozesua planifikatu	2.hiruhilabetekoan	Zuzendaria	Prozesua burutu da	Martxoan	Zuzendaritza Batzordeak Eskolako zuzendari berria izendatu du	X		Ez dago

<b>3. HELBURUA</b>	<b>Eskola izendatzeko "Bizkargi Musika eta Dantza Eskola" izena ofizialtzea.</b>							
ITURRIA	Musika eta Dantza Eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren 2.artikulua.							
jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Izena ofizialtzeko eskabidea Hezkuntza Sailera bideratu	2.hiruhilabetekoan	Zuzendaria	Hezkuntza Sailera eskabidea egin da	Martxoan	Hezkuntza Sailak onarpen ebazpena bidali du	X		Ez dago
Estatuetan Eskolaren izendapena aldatzeko eskabidea Elkarteen Erregistrora bideratu	2.hiruhilabetekoan	Batzar Nagusia	Elkarteen Erregistrora eskabidea egin da		Elkarteen Erregistroak aldatutako Estatutuen dokumentua bidali du			



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

<b>4. HELBURUA</b>	<b>Eskolaren hezkuntza eskaintza zabaltea.</b>						
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (1. helburua)						

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Kantu espezialitatea eskaini	Irailean	Zuzendaria	Kantu espezialitate berria eskaini da	Ekainean	Kantu espezialitateko klaseak eman dira	X		Ez dago

<b>5. HELBURUA</b>	<b>2024-25 ikasturtean "Aula Virtual" metodologia 2.6. mailan ezartzea.</b>						
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (1. helburua)						

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Metodologia birtuala 2.6. mailan ezarri	Irailean	2.6 mailako irakaslea	Metodologia birtuala abian jarri da	Irailean	2.6 mailan metodologia birtuala erabili da	X		Ez dago

<b>6. HELBURUA</b>	<b>2025-26 ikasturterako matrikulazio-prozedura telematikoaren ezarpenari buruzko informazioa prestatzea eta Eskolako erabiltzaileei garaiz helaraztea.</b>						
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (4. helburua)						

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Informazioa presatu eta helarazi	2.hiruhilabetekoan (matrikulagariaian)	Zuzendaria Idazkaria	Informazioa helarazi da	Ekainean	Jakinarazpena erabiltzaileen % 100ari bidali zaio	X		Ez dago



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

<b>7. HELBURUA</b>	<b>Eskolan ematen diren instrumentuak aurkezteko saioak antolatzen jarraitzea</b>
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (4. helburua)

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Instrumentuen aurkezpen saioak antolatu	2.hiruhilabetekoan	Musika Tailerreko eta Instrumentuen irakasleak	Aurkezpen saioak antolatu dira	Martxoan	Aurreikusitako saioak burutu dira	X		Instrumentu minoritarioen ezagutza bultzatzea

<b>8. HELBURUA</b>	<b>BIZIPOZA elkarteko kideei Musika Tailerretako saioak eskaintzea 3 talde ezberdinetan banatuta.</b>
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (1. eta 2.helburuak)

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Saioak antolatu	Ikasturtearen hasieran	Musika tailerreko irakaslea	3 talde ezarri dira eta saioak antolatu dira eta taldeak	Ekainean	Antolatutako saioen %100 burutu dira.	X		Ez dago

<b>9. HELBURUA</b>	<b>San Jose Egoitzako egoiliarren musikoterapia-saioekin jarraitzea.</b>
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (1. eta 2. helburuak)

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Saioak antolatu	Irailean	Musika tailerreko irakaslea	Aurreikusitako saioak antolatu dira	Ekainean	Antolatutako saioen %100 burutu dira.	X		Ez dago



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

<b>10. HELBURUA</b>	<b>Ahal den neurrian, material informatikoa berritzen joatea.</b>
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (2. helburua)

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Material informatikoaren egoera aztertu da	Ikasturtean zehar	Zuzendaria	Zaharkitutako material zerrendatu da	Ekainean	Zaharkitutako materiala berritu da	X		Ez dago

<b>11. HELBURUA</b>	<b>Eskolaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzen jarraitzea.</b>
ITURRIA	Hezkuntza Proiektua (2. helburua)

jarduerak	denboralizazioa	arduraduna/k	Jarraipen adierazlea eta data		lorpen adierazlea	bete da		hobekuntza proposamena
			adierazlea	data		bai	ez	
Matrikulen eta hileko kuoten zenbatekoa berrikusi	Matrikulazio prozesua hasi aurretik	Zuzendaritza Batzordea	Matrikulen eta kuoten zenbatekoa berrikusi da	Ekainean	Matrikulen eta kuoten zenbatekoak eguneratu dira	X		Bideragarritasun ekonomikoa berraztertzea



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

### 2.2. IKASLERIAREN IRAKASKUNTZA-PROZESUEN EBALUAZIOA

#### 2.2.1. Musika eta Dantza hezkuntza

##### a. Ikasleen emaitza akademikoaren ebaluazioa

Musika eta Dantza Eskolako ikasleen emaitza akademikoak ebaluatzeko ezarritako irizpidea ikasleen promozio-indizea da, eta lorpen-irizpidea da promozionatutako ikasleen kopurua gutxienez % 75ekoa izatea.

Beheko taulan jasotako datuen arabera, maila guztietan eta espezialitate guztietan (musika hizkuntza, dantza eta instrumentuak), mailaz igo diren ikasleen ehunekoak nabarmen gaintzen du aurreko paragrafoan aipatutako onarpen-irizpidea (% 75 baino 15 puntu gehiago). Beraz, 2024-25 ikasturteko emaitzak oso onak direla ondoriozta daiteke.

MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	PROMOZIONATUAK
<b>1. Maila</b>	110	%90,91
<b>2. Maila:</b>	<b>246</b>	
Hastapena: M. Hizkuntza + Instrumentua	25	%100
MH edo/eta instrumentua 2.1. - 2.2.	57	%89,5
MH edo/eta instrumentua 2.3. - 2.4.	58	%91,38
MH edo/eta instrumentua 2.5. - 2.6.	48	%95,83
Dantza	35	%100
<b>3. Maila:</b>	<b>112</b>	
Instrumentua + Taldea	79	%98,73
Dantza	33	%100
<b>OINARRIZKO DIPLOMA</b>	<b>13</b>	<b>%100</b>

#### 2.2.2. Ongizate sozial, fisiko eta emozionalera bideratutako hezkuntza eskaintzaren ebaluazioa

Eskolak eskaintzen dituen tailer horien izaera eta erabiltzaileen profila kontuan hartuta, horiek ebaluatzeko ezarritako irizpidea tailer horien erabiltzaileen gogobetetze-maila da. Inplikaturako arduradunek dagokion balorazioa egin dute, eta emaitza oso ona izan da. Nabarmenezkoa da, halaber, tailerretara joan diren pertsonen kopurua handia izan dela, zehazki, 68 pertsona, beheko taulan jasotzen den bezala.

TAILERRA	TALDEA	KOPURUA	HELBURUAK
Nagusien dantza taldeak	Dantza taldea	29	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antsietatea murriztea</li> <li>- Autoestimua areagotzea</li> <li>- Interakzio soziala sustatzea</li> </ul>
Nagusien musika tailerrak	San Jose Egoitzako egoiliarak	8	
	“Bizipoza” taldeak	31	



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

### 2.2.3. Aniztasun planaren ebaluazioa

Ikasturte honetan, aniztasun duten 3 ikasle izan ditugu matrikulatuta. Horien guztien ezaugarri indibidualak kontuan hartuta, beharrezko egokitzapenak egin zaizkie eta, irakasleek egindako ebaluazioaren arabera, 3 ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan izan duten aurrerapena egokia izan da.

### 3. ESKOLAKO KOMUNIKAZIO PLANAREN EBALUAZIOA

Ondorengo taulan Eskolak erabiltzaileei informazioa emateko erabiltzen dituen baliabideak jasotzen dira.

BALIABIDEA	NOIZ	HELBURUA	EBALUAZIOA		
			EGIN DA		hobekuntza proposamena
			bai	ez	
<b>WEBGUNEAK</b>	Ikasturte osoan	Erabiltzaileak informatzea, bestek beste: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua</li> <li>- Funtzionamendua</li> <li>- Araudiak</li> <li>- Egutegia</li> <li>- Taldeko ordutegiak</li> <li>- Kuotak</li> <li>- Hezkuntza eskaintza</li> <li>- Tramiteak: matrikula, baja ematea, erreklamazioak.</li> <li>- Unean uneko berriak</li> </ul>	X		
<b>SARE SOZIALAK</b>	Ikasturte osoan	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldien berri ematea</li> <li>- Egindako emanaldiak erakustea</li> <li>- Eskolan egiten diren entseguak aurkeztea</li> <li>- Ikasleekin klaseetan landutakoa erakustea</li> </ul>	X		
<b>INIKA</b>	Ikasturte osoan	- Ikasleen noten informeak helaraztea	X		
		- Jakinarazpenak helaraztea	X		
<b>IRAGARKI TAULA</b>	Matrikulazio garaian	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Matrikulatzeko epeak</li> <li>- Taldeen ordutegiak</li> </ul>	X		
	Ikasturte osoan	- Berriak	X		
<b>BILERAK</b>	Ebaluazio bakoitzean	- Ikasleen gurasoei eta ikasle helduei ikaskuntza prozesuaren berri ematea	X		
	Martxoa	- "Aula Virtual de Música" metodologia berria azaltzea			
	Ekainean	- Mailaz edo zikloz igoko diren ikasleen gurasoei maila edo ziklo horren informazioa ematea	X		
	Ekainean	- Ikasleen gurasoekin eta ikasle helduekin instrumentu klaseen ordutegiak adostea	X		
<b>INSTRUMENTUAK AURKEZTEKO SAIOAK</b>	Martxoan	- Eskolan irakasten diren instrumentu ezberdinak ezagutaraztea eta probatzea	X		



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 4. KASKUNTZA JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

JARDUERA OSAGARRIAK DATA	HELBURUA	ARDURADUNA/K	PARTE HARTZAILEAK	EBALUAZIOA		
				DATORREN IKASTURTEAN		HOBEKUNTZA PROPOSAMENA
				BAI	EZ (zergatia)	
<b>INSTRUMENTU ENTZUNALDIAK KANTU ENTZUNALDIAK</b> Ikasturtean zehar	Ikasleak agertokira ohitzea, publikoaren aurrean interpretazio-sentsazioak izatea eta ikasitakoa erakustea	Instrumentu irakasleak Kantu irakaslea	Entzunaldiari dagokion instrumentu ikasleak Kantu ikasleak	X		Ez dago
<b>SEGURAKO EUSKAL HERRIKO 48. DANTZA TXAPELKETA</b> Urriak 19	Dantza txapelketan parte hartzea	Dantza irakaslea	Nora Aizpurua-Iker Zabala eta Laura Bastida-Ekain Uzkudun bikoteak	X		Ez dago
<b>AZPEITIKO TRIKIGIRO TOPAKETA</b> Urriak 24	Trikiti topaketan parte hartzea	Pandero eta trikitixa irakasleak	Trikitilariak Panderojoleak	X		Ez dago
<b>AZKOITIA DANTZARI</b> Azaroak 21	Herriko kaleak dantzaren eta musikaren bidez girotzea, <i>Txalkor</i> Txistulari Taldearekin elkarlanean arituz	Irakasleak	Dantzariak, txistulariak, panderojoleak, trikitilariak eta Txalkor Txistulari Taldea	X		Ez dago
<b>MUSIKALEAN KALEJIRA ETA SANTA ZEZILIA JAIALDIA</b> Azaroak 22	Kalejiran parte hartzea eta Santa Zezilia eguna ospatzea	Irakasleak	Musika tailerretako ikasleak, Gazteen Banda, Biolin Taldea, Abesbatza, Dantzariak eta instrumentu talde ezberdinak.	X		Ez dago



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

<b>GABONETAKO KONTZERTUA</b> Abenduak 19	Lehenengo hiruhilekoko jarduerak amaitzea publikoari Gabonetako doinuez osatutako kontzertu bat eskainiz.	Irakasleak	Perkusio taldea, Trikitilariak, panderojoleak, ahotsak, Banda gaztea, Abesbatza	X		Ez dago
<b>PIANOKO II. JAIALDIA ERMUAN</b> Otsailak 22	Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek (EHME) antolatutako ekitaldian parte hartzea, Eskolako ikasleen jarduna zabalduz	Irakasleak	Azpeitiko, Azkoitiko, Eibarko, Ondarroako, Durangoko eta Ermuko musika eskoletako ikasleak	X		Ez dago
<b>ERREGE BEZPERAKO KABALGATA</b> Urtarrilak 5	Errege eguna ospatzeko antolatzen den kabalgatan parte hartzea, bi bandak elkarlanean arituz	Bandako zuzendaria	Gazteen Banda eta Herriko Banda	X		Ez dago
<b>“JOURNÉE CLARINETTE”</b> <b>(klarineteari eskainitako eguna)</b> Otsailak 22	Klarineteari eskainitako ekimen berezian parte hartzea, inguruko kontserbatorioetako ikasleekin batera.	Genti Dollani (Donibane Lohitzüneko kontserbatorioko klarinete irakaslea) eta Itsasne Fernandez (eskolako irakaslea)	Eskolako klarinete ikasleak eta Donibane Lohitzüneko, Hondarribiko, Hendaiako, Errenteriako eta Irungo kontserbatorioetakoak	X		Ez dago
<b>INAUTERIETAKO KALEJIRA</b> Otsailak 1	Inauterietako festetako ekitaldietan parte hartzea	Bandako zuzendaria	Gazteen Banda eta Herriko Banda	X		Ez dago
<b>XXV. TALDEZ-TALDE EKIMENA</b> Martxoak 16 Martxoak 23 Martxoak 30	Eskolako ikasleak eta taldeak herriko taldeekin batera elkarlanean aritzea	Irakasleak	Dantzariak, trikitilariak panderojoleak, Gazteen eta Herriko bandak, Bizkargi eta Iraurgi abesbatzak	X		Ez dago



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

<b>PERKUSIO MUSIKA TRESNAK</b> <b>PROBATZEN</b> Martxoak 17	Perkusio instrumentuak ezagutaraztea eta probatzea	Perkusio irakasleak	Instrumentua aukeratu nahi duten ikasleak	X		Ez dago
<b>SAN JOSE JAIK</b> Martxoak 20	San Jose Egoitzako egoiliarrei musika eta dantza saioak eskaintzea	Irakasleak	Eskolako hainbat ikasle	X		
<b>III. FLAUTA TOPAKETA</b> Apirilak 6	Herritarrei flauta musika tresna ezagutaraztea eta eskola ezberdinetako musikarien artean esperientziak partekatzea	Eskolako zuzendaria	Getaria, Astigarraga, Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Zestoa, Donostia, Azpeitia eta Azkoitiko musika eskoletako ikasleak	X		
<b>ARABAKO XXXII. DANTZA SUELTO TXAPELKETA</b> Maiatzak 1	Dantza txapelketan parte hartzea	Dantza irakaslea	Nora Aizpuru eta Iker Zabala bikotea (3.postua eta ondoen jantzitako bikotearen saria lortu zituzten)	X		
<b>HOLZ UND BLECH MUSIKA ELEKTRONIKOAREN IX. JAIALDIA</b> Maiatzaren 1etik 3ra	Musika elektronikoaren tailerlean parte hartzea	Perkusio irakaslea	Tailerlean parte hartu nahi izan zuten familiak eta gazteak		Ez dago aurreikusita	
<b>DANTZARIEN UDABERRIKO III. KALEJIRA</b> Maiatzak 11	Udaberriko kalejiran parte hartzea	“Txalkor” Txistulari Taldea	Dantzariak, trikitilariak, panderojoleak eta txistulariak	X		



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

<b>DANTZARI NAGUSIAK</b> <b>"OHOLTZAN" SAIOAN</b> Maiatzak 23	Euskal Telebistaren "OHOLTZA" programan parte hartzea, herriko eta inguruko beste dantza talde batzuetako kideekin batera	Dantza irakaslea	Eskolako dantzari nagusiak eta beste hainbat taldeetako dantzariak		Ez, aurten bakarrik egin den ekitaldi bat izan delako	
<b>IV. TRIKI EGUNA AZKOITIN</b> Maiatzak 24	Trikitixaren eta panderoen doinuekin kaleak girotzea, trikitixaren festa erromeria batekin amaituz	Udala eta "Triki giro" Elkarteak	Belaunaldi ezberdinetako trikitilari eta pandero joleak	X		
<b>IV. EUSKARALDIA 2025</b> Maiatzaren 15etik 25era	Eskola euskaraz lasai hitz egiteko gune gisa mantentzea	Udala	Eskola, erakunde gisa		Ez. Bi urtean behin antolatzen delako	
<b>IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIA</b> Ekainak 6	Ikasturte amaiera ospatzea	Zuzendaria eta irakasleak	Musika eta Dantza Tailerretako Txikiak eta Helduak, San Jose Egoitzakoak, <i>Bizipoza</i> Elkartekoak, Orkestra, Abesbatza, Euskal Musika tresnak, Rock taldea, Dantzariak, Trikitilariak, Panderojoeak eta Txistulariak.	X		
<b>MUSIKA FAMILIAN KONTZERTUA</b> Ekainak 10	haurrak musikara hurbiltzen laguntzea, proposamen ludikoen bidez	Itsasne Fernandez Eduarne Garcia	Musika Tailerreko 1 eta 2 urteko haurrak eta beraien familiak	X		



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

<b>LEIOAKO JOTA</b> Ekainak 15	Dantza txapelketan parte hartzea	Dantza irakaslea	Nora Aizpuru eta Iker Zabala bikotea (3.postua lortu zuten)		Ez dago aurreikusita	
<b>MUSIKAREN BIZIPOZA EMANALDIA</b> Ekainak 16	Eskolan egindako lana jendaurrean erakustea	Itsasne Fernandez Nora Rubio	"Bizipoza" taldeko kideak	X		
<b>"ZATOZ DANTZARA BALDA PLAZARA" ekitaldia</b> Ekainak 23	San Juan bezperako antolatzen den ekitaldian parte hartzea	Zuzendaria Irakasleak	Dantzariak, txistulariak trikitilariak eta gazteen banda	X		
<b>HERNANIKO DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA</b> Ekainak 24	Dantza txapelketan parte hartzea	Dantza irakaslea	Nora Aizpuru eta Iker Zabala bikotea (3.postua lortu zuten)		Ez dago aurreikusita	